

zinema-bideoa

■ Bergara

● 'Las tres luces' eta 'Asalto y robo de un tren' filme mutuen emanaldia Novedades Antzokian gaueko 10.30etan.

■ Irun

● 'Roma ciudad abierta' Roberto Rosellini-aren filmea ikusgai Paradiso Zinemán arratsaldeko 8etan.

■ Legazpi

● 'Urederra' diapositiben emanaldia Kultur Etxean arratsaldeko 7.30etan.

antzerkia

■ Barakaldo

● Atalaya Teatro taldeak Garcia Lorcaren *Asi que pasen 5 años* antzez-lana taularatuko du Barakaldo Antzokian 20.00etan.

■ Basauri

● Tanttaka taldeak *Chiquilladas* lana antzeztuko du Social Antzokian arratsaldeko 8.30etan.

■ Donostia

● Chicos Manbo Show taldearen *Barcelona, Paris, Caracas* antzez-lana. Antiguoko Lugaritz Kultur Etxean 20.00etan.

● Peineta Konpainiak *Mentiras* antzez-lana taularatuko du Antzoki Zaharrean arratsaldeko 8etan.

● Theatriu Konpainiak *Hoplera* lana antzeztuko du Lugaritz Kultur Etxean 20.00etan.

■ Durango

● Kafe Antzokia. Teatro Maleta taldeak *Que puñeta de maleta* lana antzeztuko du Drach aretoan gaueko 11etan.

■ Elorrio

● Maskarada taldeak *La importancia de llamarse Ernesto* antzez-lana taularatuko du Arriola Kultur Etxean 22.30etan.

musika

■ Agurain

● Oskorri taldea eta Maskarada *Landalan* diskaren aurkezpenean, kiroldegian gaueko 9etan.

■ Alegia

● Duta Deabruak Teilatuetan taldeen kontzertua Alegiako Gaztetxean gaueko 11etan.

■ Arrasate

● Malcom Scarpa eta Naco Goñi. Aterpe tabernan 22.30etan.

■ Azkoitia

● Malkom Scarpa gitarra eta ahotsa eta Naco Goñi, armonika, Txapla tabernan gaueko 10etan.

■ Bilbo

● Bilboko Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du Ayala Antzokian arratsaldeko 8etan.

● Piztiak taldearen kontzertua kafe antzokian gaueko 11etan.

● Lagunak taldeak euskal kantak abestuko ditu Bedmar Kultur Aretoan arratsaldeko 8.30etan.

■ Getxo

● El regalo de Silvia, El niño gusano eta The Tea Servants taldeen kontzertua Algortako Gwendoline aretoan.

■ Lezo

● Mahumak iparraldeko taldea. Ziriku tabernan 23.00etan.

■ Tolosa

● Gozategi taldeak *Gozategi'z Blai* kantatu eta dantza emanaldia eskainiko du Laidor Zinemaren gaueko 10.30etan.



Chiapas, Lurra eta askatasuna

Chiapasekin Elkartasunerako taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu Basaurin egun hauetarako. Gaur 'Zertan datza erreboltaren oinarria' hitzaldia izango da arratsaldeko 7.30etan Kultur Etxean. Ondoren kontzertua izango da 'Iguana y los Jumiles' taldearekin Zutarrin gaueko 9.30etan. Datorren astean hainbat hitzaldi, afari, kontzertu eta dantzaldi antolatu dituzte jendeak Chiapasko gertaeren berri izan dezan.

hitzaldiak

■ Asparrena

● Asparrenako Emakumeen 6.Elkardunaldiaren barne Emakumea eta eliza hitzaldia eskainiko du Carmen Mediavilla irakasleak Batzar Aretoan arratsaldeko 8etan.

■ Azkoitia

● Burdin Teknologiarako ikerketa zentruak Arkeologia esperimentala European. Agorregi eta burdinari buruzko ikerketak hitzaldia eskainiko du. Kultur Etxean.

■ Gernika

● Herri ekimenaren aurkezpena. Galindoren aurkako epailetaren xehetasunak eta narkotrafikoaren inguruko interes ilunak hitzaldia. Hizlariak, Bego Landa eta Txus Congil. Kultur Etxean arratsaldeko 7etan.

lehiaketak

■ Arrasate

● Haratuzteak 1996 Kartel Lehiaketa. Arrasaten bizi edo erroldatutako edozein pertsonak har dezake parte. Kartelen neurriak 50 x 70 zentimetrotakoak izango dira. Formatoak, bertikala izan beharko du halaberharrez. Teknika librea izango da. Kartelek derri gorrez testu hau izan behar dute: 1996 Haratuzteak Arrasate. Kartelak urtarrilaren 19 baino lehen bidali behar dira Udaletxeko Kultura Departamentura. Informazio gehiago bertan.

■ Basauri

● Euskarabilla Elkartearen logotipoa aukeratzeko lehiaketa. Logotipoak kolore bi edota bakarrekoa izan beharko du. Lanak DIN A-4 orrietan aurkeztuko dira. Lanean ez da egilearen daturik jarriko. Lanak helbide honetara bidali behar dira: BIOD liburudenda. Euskarabilla Elkartearen Sortzen. Jose Garai 11. 48970 Basauri. Azken eguna urtarrilaren 15a izango da. Informazio gehiago bertan.

■ Balmaseda

● Istorio Motzen V. Lehiaketa. Gazteleraz eta euskaraz egin daitezke ipuinak. Gehienez zortzi orrikoak izango dira lanak eta tarte batez makinaz idatzitako orriak izango dira. Ipuina ezizenaren azpian bidaliko da eta datu pertsonalak honen ondoan batean joango dira. Lanak Balmasedako 10 Posta Kutxara bidali behar dira. 'Clinex' aldizkariako helbidera. Lanak aurkezteko epea otsailaren 29ra arte egongo da zabalik.

● Komik Lehiaketa. Lanak zuri beltzean izango dira (Grisak barne) eta banaka edo taldean aurkez daitezke. Lanek ezin dute egilearen izenik eraman eta datu pertsonalak batean idatzirik joango dira. Pertsonaia orijinalak izan behar dute, gaia librea den arren. Lanak aurkezteko epea otsailaren 29an amaituko da eta Balmasedako 10 Posta Kutxatilara bidali behar dira.

■ Bilbo

● Argazki Lehiaketa. Edozein zaletuk har dezake parte. Argazkiak zuri-beltzean eginikoak izan behar dira. Gaia librea eta erabili beharreko teknika ere librea. Argazkien gehienezko neurria 50x80 zm-takoa. Lanak Bologuetako Gizarte Etxera (Sagarminaga, 56) eraman edo bidali behar dira. Lanak aurkezteko epea 1996. urteko urtarrilaren 30a izango da. Informazio gehiago bertan.

■ Eibar

● 'Naruzko Zezen' Antzez artikulu eta gidioentzako Lehiaketa. Idazlanak euskaraz zein gaztelaniaz antzerkiarekin zer ikusi duten gaietaz izan beharko dira; gogoetak, iritziak, proposamenak, egileak ikusiriko edozein antzerki ikuskizunaren aipamena edo kritika... Biko tarte utzirik lanak gutxienez bi eta gehienez hiru orrialde izango duelarik. 25 urte baino gutxiago duen edozein gazte parte hartu dezake, bakoitzak bere adinari dagokion sailean parte hartuko duelarik. Lanak honako helbide honetara bidali behar dira: Naruzko Zezen Saria. Egoiz Zentroa (Hezkuntz Komple-

xua). Otaola Hiribidea, 29. 20600 Eibar. Lanak aurkezteko epea otsailaren 15ean amaituko da. Gainerako oinarriak eta informazio gehiago telefonoz zerbaki honetan: 10 84 44 (15 luzapena, 15.00etatik 21.00etara).

■ Iruñea

● Sex Haizegoa Errelato Erotiko Laburren I. Lehiaketa. 18 urte gorako edozeinek har dezake parte eta lanak euskaraz zein gazteleraz egin daitezke. 30 orrialde gutxienez izan behar dute lanek eta 80 gehienez, orrialde bakoitzean 25-30 lerro agertuko direlarik. Lanak aurkezteko epea 1996. urteko urtarrilaren 31an amaituko da. Helbidea: Sex Haizegoa 31008 Posta Kutxatila Iruñea. Barañain Etorbidea, behe 29. Informazio gehiago bertan.

■ Lazkao

● VII. Gerricko Ikerlan-Sariketa antolatu dute Goiherriko Euskal Eskolak, Maizpide Euskaltegiak eta Lazkao Udaleko Udal Batzordeak. Ikerlan gaia Goierriri dagokion edozein zientzia alorretakoa izan daiteke, herri mailakoa nahiz eskualdekoa eta edozein garai lanak onartuko dira, hala ere garai jakin batzuetan kokatua izatea gomendatzen da. Lanak euskaraz nahiz gazteleraz aurkeztu daitezke eta gutxienez 100 orriko luzera izan behar dute. Lanak jasotzeko epea 1996ko martxoaren 22an bukatuko da.

■ Legazpi

● 'Inauteriak 96' Kartel Lehiaketa. Lehiaketa honetan edozein legazpiarrek hartu dezake parte, azken bi edizioetako irabazleak izan ezik. Kartelaren altuera 40 zm.koa eta zabalera 40 zm.koa izango da; irudia berriz neurri horietara egokitu beharko da. Teknika librea erabili daiteke. Legazpi Inauteriak 96 agertu beharko da kartelean. Lanak bi koloretan aurkeztuko dira, beltzaz gain. Lehiakide bakoitzak gehienez hiru lan aurkeztu ditzazke. Lanak aurkezteko epea urtarrilaren 17an amaituko da eta Legazpiko Kultur Etxera eraman behar dira. Informazio gehiago bertan.

Espainiako Gazteen Orkestra Donostian EDMON COLOMERREN zuzendaritzapean kontzertua eskainiko du Espainiako Gazteen Orkestra Nazionalak. Daniel Hope biolin jole gaztea izango da biolin eta Orkestrarako kontzertua re maiorrean obra interpretatuz. Txaikovskiren 'IV. Sinfonia fa minorean' ere joko du orkestrak. Nahiz eta musiko gazteak izan urte askotako esperientzia dute musikan. Kontzertua Principal Antzokian izango da arratsaldeko 8.15etan.

'Romeo y Julieta' Shakespearearen obra Beasainen

UR TEATRO William Shakespeare idazlearen munduan murgildu da berriz ere. Helena Pimenta zuzendariak egokitu du Veronako maitaleen istorioa, lan klasikoak egungo antzerkira hurbilduz. Komediari eta umoreari garrantzi handia eman die Pimentak bere lanean. 'El sueño de una noche de verano' antzerki lanarekin Errenteriako taldeak 1993an Antzerki Sari Nazionala lortu zuen. Gaur gaueko 10.15etan ikusgai izango da Usurbe antzokian.

Dantza askatuko ikastaroa

SEGURAKO Elorri Kultur Elkarteak joan den udaberrian emandako ikastaroren arrakasta ikusita berriz ere beste bat antolatzea erabaki du. Jexux Mari Garatek, Euskal Dantzarien Biltzarreko partaideak, zuzenduko du ikastaroa. Hamabost urteko gorakoek asteartean 18.00etatik 19.00etara eta 7 urteko 11 urte bitartekoek ostiralean 18.00etatik 19.00etara izango dute ikastordua. Beste talderik sortzen bada partehartzaileekin hitz egingo dute eguna erabakitzeko.

Zineforuma

Paradiso zinemaren GAUR gaueko 10.00etan 'Clerks' filmea izango da ikusgai Getxoko antzokian. Zurbeltzean egina dagoen istorioak musika du aipagarri, intentsitatea eta hutsak direla eta. Aktoreak ere aipatzekoak dira, zuzendariaren lagunak baitira. Filmea gune komertzial handietan garrantzen da.